

Gizloga sari akademikoa mugikortasun-irtenbiderik onentzat

Aurrekariak:

Garraio-bideen zentzuzko erabilera, Gipuzkoako sistema logistikoaren hobekuntza eta gai hauen inguruko kontzientzia eta gizarte-eztabaida handiagoa sustatuko duten ekintzak abiarazteko helburuarekin, GIZLOGA www.gizloga.com mugikortasun-foroak, EHU, TECNUN eta MUrekin elkarlanean, **GIZLOGA sari akademikoaren hirugarren edizioa** antolatu du mugikortasun arloko irtenbide eta ekimen onentzat.

Oinarriak:

Lehena: xedea

Mugikortasun eta logistika arloko irtenbide eta ekimen onentzako GIZLOGA sari akademikoaren deialdia bi helbururekin sortu da:

- Gure etorkizuneko profesionalek merkantzien eta bidaiarien egungo mugikortasun-eredua aztertu eta horren inguruan gogoeta egin dezatela sustatzea, iraunkortasun-irizpideak kontuan izanda horiek hobetzen lagunduko duten ekimenak abiarazteari begira.
- Ideia berritzaileak proposatzen parte hartzera bultzatzea, aplikaerazak eta transferigarriak izateaz gain herritarren edo merkantzien mugikortasunaren zenbait alderdi hobetzeko aukerak sor ditzaten.

Bigarrena: parte-hartzaileak

Lehiaketa hau EHUKo Gipuzkoako Campusean, MUan eta Nafarroako Unibertsitatean (TECNUM) matrikulatuta dauden unibertsitate-ikasleentzat irekita dago. Norbanakoek eta taldeek aurkez ditzakete hautagaitzak. Azken kasu horretan parte-hartzaileak ezingo dira lau baino gehiago izan. Dena dela, aurkeztutako proiektuak euren garapenean orientatzaile gisa jarduten duen irakasleriaren bidez tutorizatu ahal izango dira.

Sari honetara aurkezteak oinarriak onartzea dakar berekin.

Hirugarrena: proiektuen ezaugarriak

Lanen gai nagusiak mugikortasuna eta logistika izango dira, bai merkantziarena eta bai bidaiariarena ere. Lan originalak bakarrik onartuko dira, beren osotasunean edo zati batean, inolako formatutan lehenago argitara gabeak eta inolako saririk jaso gabeak. Guztiz amaituak eta argitaratzeko laburpenarekin prest aurkeztu beharko dira.

a) Gai-arloak

Orientabide gisa, proiektuaren ardatz izan daitezkeen zenbait gai-arlo eskaintzen dira:

- Errepide bidezko garraioaren kudeaketa.
- Garraio intermodalaren kudeaketa.

- Enpresa-logistika.
- Logistika-kate eraginkor eta iraunkorrak.
- Mugikortasun behartuaren kudeaketa: lana, ikasketak,
- Aisialdiarekin loturiko mugikortasunaren kudeaketa: ekitaldiak, ikuskizun publikoak.
- Bidaiaren Garraio publikoaren plangintza eta kudeaketa.
- Txirrindularien mugikortasuna.
- Ibilerraztasuna eta mugikortasun mugatua.
- Mugikortasuna eta Soziologia.
- Garraio-azpiegiturak.
- Merkantzien hiri-banaketa.
- Banaketaren logistika.
- Beste batzuk.

b) Proiektuaren hedadura eta aurkezteko formatua

Lanak 25 orrialdeko hedadura izan behar dute gehienez, azala kenduta, eta baldintza hauek betez idatzi beharko dira:

- Tamaina: A4
- Letra mota: Arial
- Letra-tamaina: 10
- Lerroarte: 1,5
- Marjinak: 4,5 goikoa, 2,5 eskuinekoa, ezkerrekoa eta behekoa.

Parte-hartzaileek bere aurkibidearen arabera antolatuko dituzte proiektuaren edukiak. Epaimahai kalifikatzaileak kontuan hartuko du eduki-gidoiaren kalitatea, egitura eta koherentzia.

Lanaren laburpen bat gehitu beharko da.

Laugarrena: aurkezteko epeak eta tokia

Inprimatutako lanak honako tokietan aurkeztuko dira:

- EHU: UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzan – Julianategi Eraikinean-
(Ps. Arriola 2 -20018 – Donostia),
- TECNUN: Elizabeth Urcelay. Kanpo Harremanetarako Zerbitzua. D-11 Bulegoa. Manuel Lardizabal Paseoa, 13- 20018 Donostia.
- MU: MUko Bidasoa Campuseko Idazkaritza. Hendaia Kalea 8. 20301 Irun; edo Goi Eskola Politekniko Idazkaritza Akademikoa. Loramendi, 4. 20500 Arrasate-Mondragón. Itsaso Amorrortu.

2009ko abenduaren 1a baino lehen.

Edizio digitala clustertil@clustertil.com edo itc@fundacionitc.org –era bidali ahal izango da.

(Gutun-azal itxi batean aurkeztuko dira, Gizloga sari akademikoan parte hartzeko dela berariaz adieraziz, eta barrualdean, egile(ar)en izen-abizenak, helbidea, nortasun agiri nazionalen kopia, telefonoa, harremanetarako helbide elektronikoa eta jatorrizko Unibertsitatea adieraziko dira.)

Kopia bat paper inprimatuan eta bestea formatu digitalean aurkeztuko da.

Bosgarrena: proiektuen balioespena eta aukeraketa

Aurkeztutako proiektuen lehen balioespen bat egingo du horretarako eratuko den batzordeak, b) apartatuan zerrendaturik datozen haztapen-irizpide objektiboak oinarritzat harturik lehen aukeraketa bat egin dezan.

Balioespen batzorde horrek lehen aukeraketan hautatutako lanak adituen epaimahaiari bidaliko zaizkio, haiek ere beren balioespena egin eta behin betiko epaia eman dezaten.

a) Balioespen Batzordea eta adituen epaimahaia:

- Lehen aukeraketarako batzordea Gizlogaren eta ITCren Idazkaritza Teknikoak osatuko dute.
- Amaierako ebaluazio-epaimahaia mugikortasunaren gai-arlo desberdinetan adituak diren pertsonak osatuko dute.

b) Irizpideen neurria:

Honako irizpide hauek kontuan izanik balioetsiko dira hautagaien lanak:

- Proiektuaren aurkezpena eta kalitate teknikoa: 6 puntu.
 - Aurrez ezarritako aurkibide baten arabera edukiak koherentziaz eta modu antolatuan azaltzea balioetsiko da.
 - Oinarri hauetan ezarritako formatu eta baldintzak zorrotz betetzea.
 - Proiektuaren edukiak eta aplikagarritasun teknikoa.
 - Horren aurkezpenak eta antolaerak berehala argitaratzeko modua eskaintzea ere balioetsiko da.
 - Proiektuen tutoretza balioetsiko da.
- Proposamenen orijinaltasuna eta berritasuna: 8 puntu.
 - Irtenbide edo planteamendu berritzaileak eta erraz aplikatzekoak garatzen dituzten ideiak balioetsiko dira bereziki.
- Proiektuaren egingarritasuna: 8 puntu.
 - Dakartzan onuren eta ezartzeko zailtasunen arteko harremana.
- Zeharkakotasuna eta sektoreen artean duen aplikagarritasuna: 3 puntu.

- Proiektua beste kasu edo egoera batzuetan aplikatzeko aukerak.

Seigarrena: ebazpena

Epaimahaiak **2010eko urtarrilaren 30a baino lehen** jakinaraziko du epaia, eta behin betiko izaera izango du, errekurtsorik jartzeko aukerarik gabe.

Zazpigarrena: sariak

Hiru sari emango dira. Lehenengoa 2000 € takoa, bigarrena 1000 € takoa eta hirugarrena 500 € takoa.

Zortzigarrena: lanen aurkezpena eta argitalpena.

Batzordeak egoki irizten baldin badio, saria jaso duten proiektuak beren egileengatik publikoki defendagarri edo/eta egileekin adostu ondoren argitaragarri izango dira.

Gizlogak, halaber, beretzat gordetzen du saritutako lan horiek argitaratzeko eskubidea, egoki irizten dion formatuan, baita saririk jaso ez arren argitaratzeko egokiak direla jotzen dituen gainerakoak ere. Argitaratzeko eskubide horrek urtebeteko indarraldia izango du. Lanen jabetza horien egileei dagokie.

Bederatzigarrena: eskainitako datuen konfidentzialtasuna

Eskainitako informazioak duen ezkutuko izaeragatik, sari honen antolatzaileek, koordinatzaileek eta epaimahaiko kideek, mugikortasun-irtenbiderik onenentzako GIZLOGA Sariaren testuingurutik haratago, parte-hartzaileen nortasunaren eta beren proiektuen edukiaren konfidentzialtasuna bermatuko dute; baita horien egungo erabilera- edo garapen-egoerari buruzko edozein informazio zabaltzea ere, betiere pertsona interesatuen alde aurreko baimenarekin. Proiektuari saria eman ondoren, sari honen antolatzaileek beretzat gordetzen dute publikotzat jotzen diren xehetasunak argitaratzeko eskubidea (proiektuaren izena, arduradunak eta abar).

Hamargarrena: sariak banatzeko ekitaldia

Sariak banatzeko ekitaldi ofiziala GIZLOGA foroaren jarduera-memoria aurkezteko urteko bilkuran egingo da.

Hamaikagarrena: erreferentziazko agiriak

Parte-hartzaileek, kontsultarako material gisa erabiltzeko, GIZLOGAk aurreko urteetan egindako lanak izango dituzte, proiektuaren koordinatzaile denak horien eskura jarriko baititu lehiaketari hasiera eman ondoren.

Gainera, GIZLOGAren Idazkaritza Teknikoak web orrien erreferentzia-zerrenda zabal bat jarriko du parte-hartzaileen eskura, horiek kontsultatu eta aztertu ahal izan ditzaten.

Hamabigarrena: Kontsultak

Deialdiaren oinarriari dagozkien beharrezkoak diren zalantza edo azalpen guztiak honako posta elektronikotara bidal daitezke:

- fpedraza@fundacionitc.org

- vicerektoradogipuzkoa@ehu.es
- glekuona@bidasoa.eteo.mondragon.edu //
- iamorrortu@eps.mondragon.edu
- eurcelay@tecnun.es